



2023KO INGURUMEN KOMUNIKAZIOKO ESKOLAREN MEMORIA



‘Ingurumen gaiak gazteekin eta
gazteentzat nola komunikatu’



Aurkibidea

1

Eskola

2

I. Jardunaldia

3

II. Jardunaldia

4

Hizlariak

Ihobe-Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak eta Ingurumen Informaziorako Kazetarien Elkarteak (APIA) Ingurumen Komunikazioko Eskola sustatzen dute. 2023an eskolak “Ingurumen gaiak gazteekin eta gazteentzat nola komunikatu” izan du gai nagusia.

Ingurumen Komunikazioko Eskolaren bosgarren edizioa 2023ko irailaren 7an eta 8an egin zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Udako Ikastaroetan. Aurten ere, Donostiako Miramar Jauregia ingurumen-erronka handiei buruzko hausnarketa egiteko gune bihurtu zen, eta oraingoan gazteak izan zituen ardatz.

“Ingurumen gaiak gazteekin eta gazteentzat nola komunikatu” lelopean, ikastaroak ikuspegi praktikoa izan zuen. Bertan, jardunbide egokien kasuak partekatu ziren, bai komunikazio-profesionalei bai ingurumenari buruzko informazioa gazteriarri helarazi nahi dioten beste eragile batzuei laguntzeko.

Bi jardunaldietan, ingurumen komunikazioko profesional gazteek gai hauek landu zituzten: gazteak zerk bultzatzen dituen eta zer kanaletan dauden; klima-krisiari eta beste ingurumen-erronkei nola egin diezaiekegun aurre; sare sozialen bidezko ingurumen-jardunbide egokiak; giza garunak nola funtzionatzen duen eta mezu egokien bitartez nola aktibatu; eta ingurumen komunikaziorako formatu, euskarri eta kanal berriak.

2023ko Ingurumen Komunikazioko Eskola irailaren 7an zabaldu zuten Itziar Alkorta EHUko Udako Ikastaroen Fundazioko zuzendariak eta Aitor Aldasoro Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Jasangarritasuneko sailburuordeak. Beren irekierahitzaldietan eskola, jada bere bosgarren edizioan, ingurumen komunikaziorako erreferentziazko foroa bihurtu dela nabarmendu zuten. Gazteek etorkizun jasangarriago bat lortzeko eragileak direla ere esan zuten, eta haiengana heltzeko bide egokiak aurkitu behar direla.

Javier Clemente Fortuna Todos Somos Reciclajeko arduradunak eman zion hasiera ikastaroari, “Sareetan ingurumenari buruz informatzea, ahaleaginean erori gabe” hitzaldiarekin. Clementek komunikazio digitalean arrakasta izateko gakoak eskaini zituen: sakrifizioa, esfortzua eta diziplina. Ezagutza eta zehaztasuna ere komunikatzeko tresnarik onenak direla esan zuen.

“Ezagutza daukagun tresnarik onena da. Gauza bat da iritzia ematea, eta beste bat zabaltzea, komunikatzea eta hezteak”.

Javier Clemente Fortuna
Todos Somos Reciclaje

Lehen egun horretan, Cristina Monge Lasierra politologoa, analista eta Trantsizio Ekologikorako Gobernantzako ikertzailea ere izan zen, eta eskolako lehen mahai-ingurua aurkeztu eta moderatu zuen: ‘Greenfluencerrak, ingurumenagatik mobilizatzeko modu berriak’.

Aurkezpenean, bere ustez, ingurumen-komunikazioaren hiru akats nagusiak zeintzuk diren azaldu zuen: klima-krisia gizarte osoari zuzenean eragiten ez dion gaitzat hartzea, klima-aldaketa etorkizunean kokatzea, eta hura sakrifiziotzat hartzea, eta ez ongizatea lortzeko aukeratzat.

“Sakrifizio gisa planteatu beharrean, zergatik ez dugu eskakizun eta desiragarritasun gisa planteatzen? Etorkizunagatik goza ezazu, eta ongi bizitzeko esparrua izateko borroka ezazu”

Cristina Monge Lasierra

Politologoa eta analista

Sostenibleko eduki-sortzailea da, eta jasangarritasunaz modu positiboan hitz egiten du, irtenbideak eskainiz; Olatz Ortega Vidales Ola sin plástico elkartean da boluntarioa, elkarte ekofeminista eta itsasoarekiko maitasunean oinarritzen dena; Diego Ferraz-Castiñeiras @ekoidiku kontuko ingurumen-dibulgatzailea da, eta emaitza zientifikoak herritarrei hurbiltzen saiatzen da. Elkarrizketan, hirurak bat etorri ziren gazteriara mezu positiboekin heldu behar dela, ebidentzian oinarrituta eta presio sozialerantz mugiarazteko helburuarekin.

Goizeko saioa osatzeko, CLIMABAR sortu zuten Carmen Huidobro Giménezek eta Belén Hinojar Cabestrék parte hartu zuten. Plataformaren sortzaileek proiektu hori pandemiaren garaian sortu zela azaldu zuten, ingurumen-krisia beste modu batera jakinarazteko: mezuak jende arruntari hurbilduz, erruduntasunetik urrun eta datuak erabiliz. Sortzaileek azken hamarkadetako ingurumen-komunikazioa aztertu zuten, eta hura giza komunikazio gisa ulertzearen aldeko apustua egin zuten, gero eta jende gehiagorengana ailegatzeko.

Arratsaldean, bi ekitaldi egon ziren lehen jardunaldiari amaiera emateko. Alde batetik, MATER Ecomuseoa ontziko esperientzia; atunontzi zahar bat da, eta itsasora itzuli da itsasoko zaborren arazoari buruz sentsibilizatzeko eta herritarrak haien prebentzioan inplikatzeko. Bere zuzendariarekin batera, Izaskun Suberbiola Garbizu, Gipuzkoako kostaldeko plastikoak biltzeko aukera izan zuten bertaratuek.

Eta beste aldetik, Donostiako Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloari eskainitako zineforuma. David Sánchez Carretero zuzendariak genero honetako jaialdirik garrantzitsuenaren ibilbidea deskribatu zuen. Helburua itsasoaren hondoa ezagutaraztea eta emozioak piztea da, jendea hura babesteko bultzatzeko.

Saio horretan Enrique Talledo Ruizek ere parte hartu zuen. Eskarmentu handiko dokumentalista, kamera eta itsaspeko argazkilaria da, eta ozeanoko sekretuak publikoarengana hurbildu zituen.



‘Gazteen artean kontzientzia klimatikoa sortzea: emozioek aldaketa-mezu bat transmititzen lagun dezakete’ izan zen María del Carmen Aguilar Luzónnek (Granadako Unibertsitateko Psikologia irakaslea eta PSICAMB Ingurumen Psikologiako Elkarteko lehendakaria) aukeratu zuen gaia, ingurumen-komunikazioa eta kontzientzia sortzeko gaitasuna ikuspuntu akademikotik lantzeko. Aurkezpenean, irakasleak mezu bat sortzerakoan alarmismotik ihes egin behar dela azpimarratu zuen. Ostera, emozioetara heldu behar dela eta datuak eman behar direla nabarmendu zuen, mezu horrek entzuleen garunean aldaketak sortu ditzan.

“Kontzientzia klimatikoa sortzea ez da erraza. Burmuinak ikas dezan zirrara eragin behar dugu”

María del Carmen Aguilar-Luzón

PSICAMB-Ingurumen Psikologiako Elkartea

Jardunaldiak Daniela Álvarez AC2ALITYren sortzailearekin jarraitu zuen. AC2ALITYk komunikazio digitala goitik behera aldatu du eta TikTok delakoan espainieraz gehien jarraitzen den hedabidea da. Danielak azaldu zuenez, prentsa tradizionalak eskaintzen duen informazioa ulertzeko beharragatik sortu zen proiektua, informatzeko modu horrek belaunaldi gazteenei ez zaielako gustatzen. Horregatik, sareen hizkuntza bera darabilen hedabidea sortu dute: formatu bertikalekoa, azkarra eta adiktiboa. Bere helburua, azaldu zuen bezala, gertaerak modu ulergarrian, tonu hurbilarekin eta formatu erakargarriarekin kontatzea da.

III. JARDUNALDIA

MIRAMAR JAUREGIA 2023/09/07

Jardunaldia saio praktiko bihurtu zen, eskola itxi zuten bi tailerrei esker. Lehenik eta behin, María José Montesinos Lamelasek, RNE Aragónko 'Por la Naturaleza' podcasteko zuzendariak, komunikazio-kanal berri horretan hasteko gakoak eskaini zituen. Kanala gero eta jarraitzaile gehiago ditu, eta gazteen artean hazten ari da. Azaldu zuenez, oso tresna malgua da eta hainbat abantaila biltzen ditu: sortzeko erraztasuna, kostu txikiak, zabaltzeko erraztasuna eta mezua oihartzun handiagoarekin helarazteko gaitasuna.

Hurrengo klase praktikoa Maribel Ángel Moreno Maldita.es-eko kazetariak eman zuen, eta Twitch plataforma izan zuen protagonista. Kazetariak Maldito Clima ataleko Maldito Twitcheríaren buru izan da, eta beraz, edukiak zuzenean zabaltzeko tresna interaktibo hori nola erabili azaldu zuen. Bere aholkuak hauek izan ziren: gaia eta ikuspegiak ondo aukeratzea, gonbidatuak ondo aurkitzea eta, ikus-entzuleak programa bakoitzean partaide eginez, komunitatea eraikitzea.



GAZTEEK GIDATUTAKO PROGRAMA



IREKIERA INSTITUZIONALA



Aitor Aldasoro

VIngurumen Jasangarritasuneko sailburuordea
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta
Ingurumeneko Saila. Eusko Jaurlaritz

“Etorkizuna denontzat dago jokoan, baina bereziki gazteentzat, gaur hartzen ditugun erabakien ondorioak haiek jasoko baitituzte. Beraz, erraz ulertu daiteke zergatik duten hainbesteko interesa ingurumen-erronkei eraginkortasunez aurre egiteko. Egoera horren aurrean, inoiz baino garrantzitsuagoa da gure gazteei ingurumen-jasangarritasunari eta klima-aldaketari buruzko komunikazio arloko ezagutzak eskaintzea.

SAREETAN INGURUMENARI BURUZ INFORMATZEA, AHALEGINEAN ERORI GABE”

Javier Clemente Fortuna

Todos Somos ReciclaJeko arduradunaa



Edukia sortzeko sakrifizioa, diziplina eta ahalegina behar dira, baina baita gaia ezagutu ere, gauza bat baita iritzia ematea eta beste bat komunikatzea, zabaltzea eta heztea. Zabalkunde handiagoa lortzeko gakoak benetakoa izatea eta hizkuntza naturala erabiltzea dira, argi hitz egitea sareetan ikusleak heterogeneoak direlako eta edukiak sare sozial bakoitzaren hizkuntza eta formatura egokitze gaitzateak.

KRISI EKOLOGIKOAREN AURREKO GAZTE LIDERRAK



Cristina Monge Lasierra

Politologoa, analista eta Trantsizio
Ekologikorako Gobernantzako ikertzailea




Ingurumen-komunikazioan lan egiten dugunok hiru akats handi egin ditugu espazioari, esparruari eta denborari dagokienez. Ez dugu ondo ulertarazi krisi klimatikoak gizakiongan eragin zuzena duela, biodibertsitatearen parte garelako. Ez gara etorkizunaz ari, orainaldiaz baino. Krisi klimatikoa sakrifiziotzat hartu dugu, zergatik ez dugu eskakizun eta desiragarritasun gisa planteatzen? Jasangarritasuna denok hobeto bizitzea da. Etorkizunagatik goza ezazu, eta ongi bizitzeko esparrua izateko borroka ezazu.



MAHAI-INGURUA

GREENFLUENCERRAK, INGURUMENAGATIK MOBILIZATZEKO MODU BERRIAK



Laura Peinado Rodríguez

Laura Vida Sostenibleko eduki-sortzailea



Olatz Ortega Vidales


Ola sin plástico elkartearen boluntarioa



Diego Ferraz-Castiñeiras

Ingurumen-dibulgatzailea @ekodiuku


- Gizartearen eta klima-aldaketarekin lotutako emaitza zientifikoaren artean alde handia dago. Ebidentzia zientifikoa gizarteari hurbiltzea beharrezkoa da.
- Boluntariotzatik pertsonengana iritsi daitezke, ekintzara bultzatuko duten tresnak sortuz.
- Jasangarritasuna modu positiboan hurbiltzeko gai izan behar dugu, konponbideak eskainiz eta presio soziala sortzen lagundu behar dugu.
- Sareak tresna egokiak dira boluntarioak bultzatzeko.
- Sare sozialetan eragina neurtzea oso zaila da. Gizartearen zati txiki batera iristen gara, baina zure komunitatera begiratzen baduzu, zure mezuak zuzeneko eragina du.



HITZALDIA CLIMABARREKIN




Carmen Huidobro Giménez




Belén Hinojar Cabestré




Gazteei ingurumen-krisiaren berri ematea oso zaila da. Gainera, komunikazioa oso azkar aldatzen da eta etengabe egokitu behar gara. Orain arte, klimari buruzko komunikazioaren eta pertsonen lehentasunak ez ziren berdinak, baina bizitzea guztion lehentasuna da. Orain arte, mezu ez oso enpatikoak erabili dira, urrunekoak eta pertsoneri errua egozten ziotenak. Mezuak jende arruntarengana hurbildu behar dira eta oraindik konbentzituta ez dauden pertsonengana iritsi. Klimari buruzko komunikazioa giza komunikazio gisa ulertu behar da.



MATER ECOMUSEOA ONTZIKO ESPERIENTZIA



Izaskun Suberbiola Garbizu
Zuzendaria



2003az geroztik, MATERen Euskal Herriko ekialdeko kostaldeko ingurumen-egoeraren jarraipena egiten dugu. Biodibertsitatea ulertezina den altxor gisa erakusten saiatzen gara, babesten gaituena eta gure espeziea bizi ahal izateko baldintzak oparitzen dizkiguna. Gizartea, oro har, ingurumena zaintzen hastea da erronka nagusia, izan ere, bada garaia planetaren norabidea alda dezakeen eta aldatu nahi duen herritartasun ekoaktiboa sortzeko.




ZINEFORUMA DONOSTIAKO ITSASPEKO ZINEMAREN NAZIOARTEKO ZIKLOAREKIN - CIMASUB



David Sánchez Carretero
Zuzendaria

CIMASUB itsas hondoa ezagutarazteko zinemaldia da. 75. urteaz geroztik, itsasoarekiko maitasunaz eta zaintzaz kontzientziatzeko ekitaldia da. Kirola, kultura, teknologia, ingurumena eta natura gara. Itsasoaren edertasuna erakusten dugu, baina baita alde gordina ere, jendeak bere ondorioak atera ditzan, ikusten ez dena ez baita existitzen.



Enrique Talledo Ruiz
Dokumentalista, kamera eta itsaspeko argazkilaria | secretosdeloceano.com

Itsaspeko kamera eta argazkilaria gisa, itsas animalia handiak ikusteko zorte handia izan dut, baina lotutako dortokak, harrapatutako zetazeoak... ere ikusi ditut.

Urteetan zehar, ingurumen-hezkuntzarekin konprometitu naiz irudien boterea izugarria delako, eta istorioekin batera aurkezten baditugu, hobeto.

Ozeanoak birsortzeko gaitasun handia dute; dibulgatzaileek bide horretatik joan beharko genuke

GAZTEEN ARTEAN KONTZIENTZIA KLIMATIKOA SORTZEA: EMOZIOEK ALDAKETA-MEZU BAT TRANSMITITZEN LAGUN DEZAKETE




María del Carmen Aguilar-Luzón

Granadako Unibertsitateko Psikologia irakaslea
PSICAMB-Ingurumen Psikologiako Elkarteko lehendakaria

“Kontzientzia klimatikoa sortzea ez da erraza, ezagutzak eskatzen ditu eta diziplina anitzeko lana da. Ingurumen-psikologiatik kontzientzia handiagoa sor daiteke. Eta zer da kontzientzia? Pertsuasioa da, jarrerak sortu edo aldatu nahi dituen komunikazioa. Mezu emozional batek aldaketa afektiboak dakartza, eta mezu arrazional batek, berriz, aldaketa kognitiboak; gakoa biak parekatzean datza. Aldaketa bat gertatzeko, datuak emateaz gain, zirrara eragin behar dugu burmuinak ikas dezan.


NOLA SORTU NUEN TIKTOKEN GAZTELANIAZ GEHIEN ERABILTZEN DEN KOMUNIKABIDEA: AC2ALITY



Daniela Álvarez
CEO eta sortzailea

AC2ALITY aldaketa baten beharretik sortzen da, millenialak eta Z belaunaldia ohiko hedabide masiboetatik aldentzen direlako. Gazteek informatuta egon nahi dute, baina hizkuntza argi baten bidez. Sareen hizkuntza erabili behar da, azkarragoa eta adiktiboagoa. Gertaerak modu ulergarrian, tonu hurbilarekin eta formatu erakargarriarekin kontatu behar dira.

PODCASTING TAILERRA




María José Montesinos Lamelas

RNE Aragónko 'Por la Naturaleza' podcasteko zuzendaria



Podcast bat irrati-formatu baten antzekoena da, baina abantaila bat du: nahi duzunean entzun dezakezu. Gainera, jendearengana iristeko modu erraza da, informazioa lortzeko, ondo pasatzeko eta ikasteko entzuten duena. Oso malgua eta irisgarria da, eta gure mezuak eragin handiagoa izan dezan iradokitze eta konbentzitzeko gaitasuna du.

TWITCH TAILERRA




Maribel Ángel-Moreno

Maldita.es-eko kazetaria

Twitch hainbat edukiei buruzko zuzeneko emanaldiak egiten dituen sare soziala da. Twitchería bat antolatzeke, ondo aukeratu behar duzu zer gairi buruz hitz egingo duzun, zer ikuspegi izango duzun, eta gonbidatuak ondo aukeratu behar dira, ikuspegi horiekin bat etortzeko: hurbilak izatea, espezialistak izatea, genero- eta geografia-aniztasuna egotea...

Twitcheke pisu guztia komunitatean jartzen du; komunitatea pixkanaka eraikitzen da eta txataren bidez zuzenean parte hartzen du.





“Ingurumen Komunikazioko Eskolak gazteek klima-krisiaren aurrean duten zeregina aldarrikatu du, eta baita ingurumen-komunikazioa komunikazio zuzenagoa, hurbilagoa eta ekintzara deitzeko emozioak transmititzeko gai izan behar dela ere”.

MILLA ESKER

BATZORDE ANTOLATZAILEA



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES



Donostia
Sustainability
Forum



APIA



ihobe
Instituto Vasco de Medio Ambiente



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamentuaren Logotipoa
Logo of the Department
Logo of the Department
Logo of the Department



EUSKADIKO PACTO
ITUN VERDE
BERDEA DE EUSKADI